

EUSKAL GEHIENGO SINDIKALA, OSO POZIK GREBA OROKORRAK IZAN DUEN OIHARTZUN HANDIAREKIN

Industriako enpresen %65a, itxita

Hamarna milaka langilek hartu du parte manifestazioetan

Gaurko deituta zegoen grebak oihartzun handia izan du Hego Euskal Herriko sektore eta enpresetan. Horrek esan nahi du EAE mailan greba orokor handi bat izan dela, eta Nafarroan emaitza zabala lortu duela.

INDUSTRIA-SEKTOREA (Koadro laburtua)

<u>Lurraldea</u>	<u>Guztira Enpresak</u>	<u>>%70 Lanuztea</u>	<u>>%30 Lanuztea</u>	<u><%30 Lanuztea</u>	<u>Daturik gabe</u>
ARABA	113	506 %49,56	28 %24,78	24 %21,24	5 %4,42
BIZKAIA	186	110 %59,14	34 %18,28	31 %16,67	11 %5,91
GIPUZKOA	181	145 %80,11	17 %28,44	11 %19,27	8 %6,42
EAE	480	311 %64,79	79 %16,46	66 %13,75	24 %5,00

Greba egin duen enpresa kopurua eta lanuztea zenbatekoa izan den kontutan izanik, greba orokorrak arrakasta izan du sektore honetan.

Izan den lanuzte mailari buruzko informazioa ERANSKINEan zehaztu dugu; EAEko 50etik gora langile duten enpresen zerrenda bat jaso dugu, lantoki bakoitzean zenbateko lanuztea izan den adieraziz.

Enpresa guztien artean, %30etik gorako lanuztea %81,25ean izan da. Bestalde, jarraipen txikiagoa izan da enpresen %13,75ean.

Eranskinak dioen legez, erabateko lanuztea -%70etik gorakoa- 311 enpresatan izan da, hots, enpresen %64,79an.

Greba %30etik gora egin den enpresa industrialak 79 dira, %16,46.

Lanuztea oso txikia izan da edo eguneroko jarduera bete dute 66 enpresatan (%13,75).

Informazio hau egiteko unean 24 enpresaren berririk ez daukagu (%5).

Nafarroan lanuztea erabatekoa izan da hainbat enpresatan; eragina oso handia izan da Sakanan eta Erkidegoko iparraldean. Iruñerrian eta honen inguruko industrian grebak

nahikoa oihartzun izan du, eta grebari emandako babesa ikusteko moduan adierazi dute langileek.

Bestalde, ehundaka enpresa txiki eta ertainetan ere lanuztea erabatekoa izan da; horrek deitutako grebari langileek eman dioten erantzun orokorra nabarmendu du.

Beraz, industria-sektoreko datuak ikusirik, grebak oihartzun handia izan du, eta jarraipena orokorra izan da. Hau ez da harritzekoa, kontutan izanik industrian jasaten direla krisi egoeraren ondorioz larrienak, eta ugazabek lantegi hauetan egiten dutela xantaiarik gordinena.

ZERBITZU PRIBATUAK

Grebak zerbitzu-sektorean ere eragin oso handia izan du.

Hain zuzen, merkataritzan langileen gehiengoak egin du greba. Oihalgintza eta elikagaietako saltoki ezagunenetan greba ia erabatekoa izan da. Adibidez, Inditex taldean (Zara, Bershka, Masimo Dutti, Pull and Bear, Oysho, etab.); H & Mn, Marionnaud lurrindegietan, eta elikagai dendetan (Sabeco, Lidl, Dia, BM).

Hainbat saltoki handi (Olaberriko eta Oiartzungo Carrefour, Alcampo, Abadiñoko Hiper Eroski) itxita egon da.

Denda txikietan eta ostalaritzan grebaren jarraipena aski zabala izan da. Nabarmentzekoa da lanuztea ia erabatekoa izan dela Gipuzkoan

Kaleetako eta eraikin zein lokalen garbitasun zerbitzuetan lanuztea oso handia izan da, kirol-zerbitzu eta hainbat hiritako TAOan bezalaxe.

Finantza-sektorean, berriz, grebak eragin partziala izan du; ez da lanegun normala izan, eta banketxe eta kutxetako bulego asko itxita egon da.

Nafarroan elikagaien industriako sektorean langileen gehiengoak bat egin du lanuztearekin. Tuterako udaleko azpikontratek greba egin dute. Merkataritzan ere jarraipen zabala izan du grebak.

ZERBITZU PUBLIKOAK

Toki- eta Foru-administrazioan lanuztea handia izan da, batik bat udal gehienetan.

Aipatzeko modukoak dira, besteak beste, Tolosa, Ordizia, Beasain, Legazpi, Hernani, Usurbil, Bergara, Hondarribia, Pasaia, Oiartzun eta Zarautz, Gipuzkoan; Durango, Gernika, Galdakao, Urduña, Erandio, Leioa eta Muskiz, Bizkaian, eta Agurain eta Dulantzi, Araban; oro har Arabako lautadan lanuztea erabatekoa izan da. Ezkerraldeko udal handietan (Barakaldo, Santurtzi edo Portugalete), lanuztea nabarmena izan da.

Hiriburuetakoa udaletan grebak oihartzun handia izan du; Gasteiz eta Donostian, %60etik gora, eta Bilbon, %70ekoa. Aldundietan, berriz, jarraipena txikiagoa izan da, baina Arabako eta Bizkaiko gizarte-ekintza erakundeetan (IFBS eta IFAS) lanuztea erabatekoa izan da, eta gutxieneko zerbitzuak besterik ez dira eman.

Gizarte-zerbitzuen sektorean aipatzekoak dira adinekoen egoitzak; hauetan aurrez egindako batzarretan bozketak lanuztearen aldekoak izan ziren, eta gaur hala ikusi da; oro har gutxieneko zerbitzuak besterik ez dira izan. Honako egoitzak nabarmen ditzakegu: Aldakonea, eta Villa Sacramento Donostian; San Jose Ordizian eta Iurreamendi Tolosan; Ariznavarra Gasteizen, Nafarroa eguneko zentroa Zornotzan eta Caser Bilbon, Loramendi Erandion eta Gurena egoitza Derion.

EAEko administrazio orokorrean, berriz, lanuztea zabala izan da, %55 inguru.

EAEko Justizia administrazioan grebak jarraipen desberdina lortu du; Gipuzkoa da aipagarria, %75etik gora; horrek epaitegietakoa jarduera normalari eragin dio.

Grebak **Osakidetza**ko esparru guztietan izan du eragina, bai ospitaleetan, bai lehen arretako zentroetan ere; esan beharra dago, halere, esparru honetako langileen %80tik gora dagoela gutxieneko zerbitzuak ematera behartuta.

Nafarroan, lanuztea arlo publikoan zabala izan da; greba partziala egin dute Nafarroako Gobernuan (Administrazio orokorra), Osasunbidean, Gizarte-Ekintza, Kirol eta Gazteriaren Institutu nafarrean, Larrialdietan, INAPen... Tokiko administrazioan, udal askotan egin da greba partziala, batik bat Iruñerrian, Sakanan eta Nafarroako iparraldean.

Irakaskuntzan, ikastetxe publikoetan, ikastoletan eta gizarte-ekimeneko eskoletan ikasturtea amaituta dago, baina nabarmen dezakegu sektoreko langile askok eta askok hartu duela parte lau hiriburuetakoa mobilizazioetan. Bestalde, EHUn lanuzteak erantzun handia izan du; ia eskaini den zerbitzu bakarra, azterketetarako gutxieneko zerbitzuak. Haurreskoletan lanuztea oso handia izan da, langileen %80 inguruk jarraitu baitute.

Garraioen sektorean gutxieneko zerbitzuak bete dira. Trenbideetako bidaiarien garraioan, EuskoTrenen, tranbieten eta Bilboko Metroan lanuztearen jarraipena handia izan da. Errepideko bidaiarien garraioan ere jarraipena handia izan da, eta gutxieneko zerbitzuak normaltasunez bete dira, gehiegizkoak agindu diren arren. Salgaien garraioan grebak babes garrantzitsua izan du. Bilboko eta Pasaiaiko portuetan lanuztea izan da nagusi, eta oinarritzko zerbitzuak besterik ez dira eman.

Eraikuntzan, grebak obra handietan eragin du, batik bat Gipuzkoan; grebaren eragina desberdina izan da, baina garrantzitsua, Bizkaia, Araba eta Nafarroan. Gainera, porlanaren industria eta hormigoi ekoizle eta banatzaileetan greba nagusi izan da (Lemona Industrial, Añorga eta Arrigorriagako Financiera y Minera, Portland Valderrivas, Hormigones Lazkano, Altuna y Uria, Hormigones Azkune...).

Energia-gaien produkzio eta banaketa sektorean, Petronorreko findegian greba egin da eta gasolindegietan erantzuna desberdina izan da.

Komunikabideetan, prentsa idatzian grebarekin bat egin dute Garak, Berriak, hainbat eskualdetako HITZA egunkariak, baita Deia eta Diario Vasco egunkarietako errotatibek ere. Ikus-entzunezko hedabideetan gutxieneko zerbitzuak eman ditu EITB taldeak (ETB, Radio Euskadi, Euskadi Irratia, Radio Vitoria...), eta lanuzteak eragina izan du hainbat irratitan.

Aipagarria da ere politikako eta gizarteko sektore eta talde ugari deialdi honi eman dioten babesa.

Azkenik, esan beharra dago hamarna milaka langilek hartu duela parte eguerdian Gasteiz, Iruñea, Donostia eta Bilbon izan diren manifestazioetan. Jende gehien Bilbon elkartu da; berton hitz egin dute greba deitu zuten sindikatueta buruzagiek.

Bilbo, 2010eko ekainaren 29a